

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Baztango uholdeen ondoriozko presazko obra guztiak eginda daude edo egiten ari dira

1.586.135 euroko da iragan uztailaren 4ko kalteak konpontzeko aurrekontua

Miércoles, 13 de agosto de 2014

Nafarroako Gobernua, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, iragan uztailaren 4an Baztanen izan ziren eurite handien eta uholdeen ondorioz [presakotzat jotako](#) obra guztiak egiten ari da; bukatu ditu horietako batzuk dagoeneko.

Presakotzat jotzeko, uholdeen ondorioz ezgaitutako gunetako pasabideak konpontzeko eta berriro gaitzeko egin beharreko lanak hartu ziren kontuan. Halakotzat jo ziren, baita ere, pertsonentzako berehalako arriskua eragiten zuten kalteak dituzten azpiegituretako lanak edo zerbitzua lehengoratzea ezinbestekoa zuten egoerak, azpiegitura hidraulikoen kasuan.

Gogorarazi beharrekoa da, uztailaren 5ean, Baztanen izan zirela Toki Administrazioiko zuzendari nagusia eta Toki Azpiegituren Zerbitzuko zuzendaria uholdeek eragindako hondamen-kalteak ikusteko, udaleko eta Erratzuko ordezkariekin batera.

Presakotzat jotako obrak eta jarduerak zehaztu zituzten eta, uztailaren 7an, 8an, 10ean eta 11n kaltetutako eremuetan izan ziren Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuko teknikarien aholkularitzaren bidez, presakotzat jotako jarduerak zehaztu eta baloratu zituen Baztango Udalak.

Horretarako, Udalak, uztailaren 7an eta 9an, presazko jardueratzat jo zituen horiek, aipatutako irizpide teknikoaren arabera (ezgaitutako eta bizitoki diren eremuetarako pasabideak gaitzea; pertsonentzako berehalako arriskua eragingo luketen kalteak dituzten azpiegituretan lanak gauzatzea, edo azpiegitura hidraulikoak lehengoratzea).



Elizondoko kale bat uztailaren 4ko uholdeak gertatu zirenean

Ondoren, irizpide horretan oinarrituta, presakotzat jotako lanen zerrenda eta horien balioetsitako memoriak aurkeztu zituen Baztango Udalak uztailaren 31n Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusian.

Kalteak sortu eta hilabete eta hamar egunera, joan den abuztuaren 6ko bisitan, lanak abian direla egiaztatu zen (batzuk ia amaituta daude); nolana ere, auzokide guztiek dute lehengoratuta euren etxebizitza eta baserrietarako sarbidea. 1.586.135,99 eurokoa da (zerbitzu-sariak eta BEZa barne) Udalak aurkeztutako aurrekontua, balioetsitako memoria horietan oinarrituta.

Aitorturiko presazko lanak

Bestalde, Nafarroako Gobernuak administrazio-prozesua hasi du uholdeen ondoriozko kalteak dituzten tokiko bideetan egin beharreko "aitortutako presazko lanak" zehazteko, nahiz eta horietatik pasatzea baimenduta egon.

Baztango Udalak, iragan abuztuaren 7an, 228.296,03 euroko lanak egiteko eskatu ondoren (erregistro bidez) hasi da prozesua.

Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak horren harira eta Toki Azpiegituren Plana arautzen duten Legean eta Dekretuan ezarritako irizpideei jarraiki idatzitako txosten teknikoaren arabera, aitortutako presazko obratzat har daitezkeen jarduerak 107.708,03 euroko zenbatekoa dute (zerbitzu-sariak eta BEZa barne).

Aitorpen egokia egin ondoren, 2009-2012ko Toki Azpiegituren Planaren barruan egingo dira obrak. Edonola ere, Baztango Udalak bere eskumenak erabil ditzake lanak hasteko baimena eskatzeko eta horiei ekiteko, Nafarroako Gobernuak lanak aitorturiko presazko obratzat jotzeko administrazio-prozesua erabaki arte.